

Txetxeniako hiriburuari airez egin diote eraso osterera ere

Hilabete honetan atzo bonbardatu zuten lehen aldiz Grozni

Txetxeniako hiriburuari —Grozni— airez egin zioten eraso atzo. Ondorioz hildakoak ere izan dira, gutxienez bat bai behintzat. Halaxe adierazi zuen Postfactum Errusiako berri agentziak. Abenduaren hasieratik hona, atzo egin zioten lehen eraso Grozniri.

MOSKU

Lerro hauek idazteko garaian artean Grozniko hiria zeharkatzen ari ziren SU-27 hegazkin bonbardatzaileak eta bien bitartean bomba batzuk ere jaurti zituzten. Ondorioz, pertsona bat behintzat hil zen goizean.

Txetxeniak bahituta zituen soldadu errusiarrak aske uzteko asmoz, Moskuko ordezkariak eta Dzhokhar Dudaiev Txetxeniako lehendakaria negoziatzen hasi zirenetik hona Grozniri egin dioten lehen eraso da atzokoa. Abenduaren hasieran bildu ziren bi aldeak.

Abenduaren hasieratik hona Grozniri erasorik egin ez badiote ere, Txetxeniako agintarientzat ez zen sorpresa handia izan atzokoa. Izan ere, atzoko eraso hasi baino lehen, Txetxeniako agintariek jada aurikusi zuten laster egingo zietela eraso. Bonbardaketa hasi baino lehenxeago, «Errusiako tropen eraso mo-



Txetxeniako mugak itxi dituzte errusiarrak.

REUTER.

mentu batetik bestera izango delakoan gara», adierazi zuten Txetxeniako agintariek. Hauen ustez, Boris Ieltsin Errusiako lehendakariak herenegun egin zuen dekretuak ekarriko zuen eraso. Ieltsinek herenegun egindako dekretuaren bidez, Gobernuaren ardurapean utzi zuen «beharrezkoak diren neurriak hartuta Txetxeniaren ordena konstituzionala berrezartzea». 'Kommersant Daily' egunkariak atzo kaleratu zuenez, «lehendakariak Gobernuari eskaera gisa

eginiko dekretua ez da zertan Parlamentuko Goi Ganbaran berretsi». Gauzak horrela, «hemendik aurrera Txetxeniaren izango diren ekintza militarrek direla eta, Parlamentuaren aholkuei entzungor egin izana ezingo zaio soilik Ieltsini leporatu», gaineratzen du aipatu egunkariak.

Bestalde, Txetxeniako lurreko eta aireko mugak itxeko agindua eman zuen Errusiako Gobernuak, Txetxenia ingurua kontrolpean izateko, alegia.

Bosniako serbiarrek 187 kasko urdin askatu dituzte

SARAJEVO

Bosniako serbiarrek 187 kasko urdin aske utzi zituzten herenegun gauean. Halaxe adierazi zuen atzo Jan Dirk von Merveldt koronelak. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Sarajevon duen bozeramailea da Merveldt. NATOko hegazkinek egin zituzten azken bonbardaketengatik, hain zuzen, bahitu zituzten Bosniako serbiarrek kasko urdinak.

Sarajevo inguruan izan dituzte gordeta kasko urdinak,

hain zuzen ere, NBEk Bosniako serbiarrei arma astunak uzteko agindu zien guneetan.

Aske utzi dituzten 187 kasko urdinetatik 65 frantziarrak dira, 40 errusiarrak eta 82 ukrainiarrak.

Bestalde, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiaren arabera, Kroaziako Krajina serbiarren «lurralde okupatua da». Horri irtenbide bat aurkitzea hitzartu zuten herenegun Batzar Nagusiaren gehienek. Errusia, Txina, India, Mexiko eta Venezuela abstenitu egin ziren.

Ameriken Gailurrean merkatu librerako egutegia zehaztu da

MIAMI

Kontinentean merkatu librearen indarrean jartzeko negoziaketa datak zehaztu dituzte Ameriken Gailurrean. Kuba izan ezik, Amerikako gailurreko 34 herrialdeetako ordezkariak bildu dira Miami, Ameriken Goi Bileran. Ostiralean hasi zen gailur hori eta gaur amaituko da. Goi bileran hitzartu zuten, 2005. urterako amaituta egon behar dute negoziaketek.

Merkatu librerako lehen bilerak «teknikoa» datorren urtearen hasieran egingo da. Bigarren urratsa berriz, 1995eko ekainean emango dute. Bilera

horretan merkataritza arloaz arduratzen diren ministroak bilduko dira eta merkatuaren liberalizazioaren gaineko zehaztasunak biltzen dituen «dokumentu zirriborroa» egin beharko dute; besteak beste, merkatu librearen zein guntan indartu behar den argiagotzea erakutsiko duen txostena. 1996ko martxoan ere merkataritza arduratzen diren ministroak bilduko dira eta azken txostenaren berri eman eta ondorengo egutegiaren berri eman beharko dute. Bestalde, droga trafikaren eta ustelkeriaren aurkako neurriak ere hartu dituzte Miami goi bileran.



REUTER

Bakearen Nobel saridunak

Yitzhak Rabin Israelgo lehen ministroak, Simon Peres Israelgo Atzerri ministroak eta Iasser Arafat Agente Nazional Palestinarreko lehendakariak Bakearen Nobel saria jaso zuten atzo Oslon, Norvegia. Rabin saria jaso baino lehen adierazi zuenez, «Nobel saria hartu ala ez erabaki behar izan nuen unea ez zen erraza izan, Arafatek ere nirekin batera hartu behar zuela jakinarazi baitzidaten; hala ere, Arafatek bakean bizi ahal izateko elkartzunean bizitzeko gogoia duela azaldu zuenez, nik Bakearen Nobel saria jasotzea erabaki nuen».

JOXAN ARTZE

JEXUX ARTZE
INES ELORTZA

HITS eta FITS
banda



Mundua gizonarentzat egin da,
baina ez gizona munduarentzat



DONOSTIA
VICTORIA EUGENIA

1994.eko ABENDUAK 13 - Asteartea, gaueko 9tan



FESTAROA 94